PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
Atala: 0340 - Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 400 - Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arreta
Funtzionala: 232 - Gizarte sustapena

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gure izateko arrazoia da gizarte-erantzukizun publiko instituzionala gauzatzea, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen, gizarte-larrialdiko edo gizarte-urgentziako egoeran dauden pertsonen eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak eta gizarteratzea sustatzeko eta haien bizi-kalitate ahalik eta onena bultzatzeko, komunitatean parte har dezaten eta gainerako herritarren baldintza berberetan gizarteratu daitezen.
Horretarako, pertsona horien beharretara hobekien egokitzen diren programak, zerbitzuak eta laguntzak planifikatu, antolatu, kudeatu eta eskaintzen ditugu, zuzenean edo elkarte eta enpresekin lankidetzan. Gure jarduketen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia eta intersekzionala zeharka txertatzen ditugu, baliabideak eskuratzea, jasotzen duten arreta eta gizarteratzeko aukerak baldintza ditzaketen desberdinkeriak eta diskriminazioak identifikatzeko eta horiei heltzeko.

Egoeraren diagnostikoa:

Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen profilak: Profil ohikoenak osasun mentaleko arazoak, desgaitasuna, gizarte-laguntzako sarerik eza eta zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak dira. Administrazio-irregulartasuneko egoeran dauden atzerritarren, Magrebeko gazteen eta prekarietate-egoeran dauden Latinoamerikako familien profilak ere identifikatu dira.

Etxebizitza-arazoak: Etxebizitza bazterkeriaren funtsezko faktorea da, batez ere eremu turistikoetako alokairu-prezioen igoerarekin eta lokal edo karabanen okupazioarekin. Gainera, etxebizitza behar bezala eskuratzeko aukerarik ez izatea eta gizarteratzeko prozesuak errazteko baliabide nahikorik ez izatea arazo nabarmenak dira.

Zerbitzuekiko zailtasunak: Zerbitzuetarako sarbidearekin lotutako hainbat arazo aipatzen dira, hala nola baliabide falta, horiek eskuratzeko itxaronaldi luzea, eta ikuspegi integral baten falta. Era berean, gizarte-bazterkeriako prozesuetan pertsonek duten parte-hartze eskasa kritikatzen da, bai eta arreta-maila desberdinen arteko koordinazioa hobetzeko beharra ere.

Osasun mentala: Osasun mentala arazo garrantzitsuenetako bat da; izan ere, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsona askok nahasmendu mentalak izaten dituzte, eta horrek beren inklusio-prozesua zailtzen du.

Errolda eta administrazio-erregularizazioa: Udalen artean gizarte-erroldari buruzko irizpide komunik eza eta egoera irregularrean dauden pertsonak erregularizatzeko zailtasuna behin eta berriz errepikatzen diren gaiak dira. Horrek baliabideen eskuragarritasunean desoreka sortzen du eta bazterkerian dauden pertsonen identifikazioa zailtzen du.

Migrazioen eragina: Migratzaileen gorakada, bereziki magrebtarrena, beste faktore garrantzitsu bat da. Administrazio-erregularizaziorako eta zerbitzu egokietarako sarbiderik ezak oztopo handiagoak sortzen dizkie pertsona horiei. Eskuhartze sozialean kulturarteko ikuspegiaren beharra

Baliabide eta langile espezializatu gehiagoren beharra: Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen gero eta behar handiagoei erantzuteko udal nahiz eskualde mailako baliabide gutxi daudela azpimarratzen da. Laguntza-zerbitzuetan inbertsio handiagoa egitea eskatzen da, bereziki intentsitate handiko beharrizanak dituzten pertsonentzat eta kasu konplexuenentzat.

Etxerik gabeko emakumeak: Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden emakumeek ahultasun handiagoko egoerei aurre egiten diete, hala nola segurtasunik ezari, gizonekin partekatutako guneetan daudelako.

Profesionalak zaintzea: Bazterketa-egoeran dauden pertsonekin lan egiten duten profesionalen

"erremina" edo nekea beste kezka nabarmen bat da.

Kartera gutxi betetzen da bazterkeria-gaietan: arrazoi desberdinengatik, eskualde askotan Zorroak bazterketa-egoeran dauden pertsonentzat ezartzen zituen zerbitzuak gutxi betetzen direla egiaztatzen da.

Indarkeria matxistaren kasuetan, era guztietako zerbitzuetarako eskaeraren gorakada nabarmena.

Beharraren deskribapen xehatua:

Programak honako gai hauei erantzun nahi die:
- arrisku edo gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen, indarkeria matxistaren biktimen eta larrialdi edo urgentzia sozialeko egoeretan dauden pertsonen beharrak baloratzea.
- pertsonen beharretara egokitutako laguntzak eskaintzea: ostatua, laguntza, esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala, arreta soziojuridikoa.
- araudi aplikagarritik eratorritakoak, bazterketaren prebentzioko eta inklusioaren sustapeneko zerbitzua barne, bai eta enplegagarritasuneko eta gizarteratzeko eta laneratzeko zerbitzua ere.

Nori zuzendua:

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haien seme-alabak eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

- Zerbitzuko ataletako zerbitzuak
- Aurrekontua.
- Kontratatutako eta itundutako zerbitzuak.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

- Oinarrizko gizarte zerbitzuen eskaerak extranet bitartez berrikustea.
- Informazioa aztertzea eta kasuak baloratzea.
- Zerbitzuko baliabideen inguruan orientabidea ematea eta horiek .eskuratzea, edo erabiltzailea beste baliabide batzuetara bideratzea.
- Beste eragile batzuekin koordinatzea.
- Jarraipena egitea.
- Ebaluatzea eta planifikatzea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

- Larrialdietarako Koordinazioko Foru Zerbitzua.
- Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta psikologikoa.
- Indarkeria matxistaren biktimentzako harrera zentroak.
- Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta soziojuridikoa.
- Gizarteratzeko etxebizitzak.
- Gizarteratzeko programak.
- Gizarteratzeko eguneko zentroak.

Programaren arau esparrua:

- Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko III. akordioa.
- 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurka Babes Integralerako neurriei buruzkoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.
- 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua arauten dueña.
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa
- 148/2007 DEKRETUA, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituena.
- 45/2004 Foru Dekretua, maiatzaren 18koa, bizikidetzaren eremuan tratu txarrak hartu eta/edo sexu askatasunaren kontrako ustezko delituak jasan dituztenentzako Laguntza Psikologikoko Programa arautzekoa.

- 5/2014 Foru Dekretua, martxoaren 4koa,Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapeko bigarren mailako arretako izarteratzeko baliabideak eskuratzeko prozedura arautzekoa.
-IV Emakumeen eta gizonen berdintasun plana
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa.
- Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana (2025-2027) Gipuzkoan.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Lankidetzan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundi aurre-hartzailea, ekintzailea eta eraginkorra

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailearen garapenaren aurrerapen maila	Ehunekoa	>=	6,50	6,50	7,00	7,00
Digitalizazio planaren aurrerapen maila	Ehunekoa	>=	70,00	70,00	100,00	100,00
Erretiroa hartuko duten teknikarien % 90ean belaunaldi ondorengotza ziurtatzeko prozesuan parte hartzea	Ehunekoa	>=	99,00	99,00	90,00	90,00
Gobernantza aurre-hartzailearen eredura jarduera eredua diseinatzea eta hedatzea	Ehunekoa	>=	100,00	100,00	100,00	100,00
Saileko kasu konplexuen mahaian tratatutako Zerbitzuko kasu konplexuen kopurua.	Kopurua	>=	48,00	30,00	50,00	50,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Etorkizuna Eraikizek sustatzen duen lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailean sakontzea.

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA

% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**18.629,54**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Lankidetza Eusko Jaurlaritzarekin	18.629,54			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
2. Ekintza lerroa: Barne antolaketaren eraldaketa sustatzea, egiturei, profilei eta pertsonei dagokionez.						
 % 50,00  % 50,00						
	Ordainketa kredituak	**Datozen urteetako gastuak**	**Sarrera lotua**	**Hasiera data**	**Bukaera data**	**Etorkizuna eraikiz**
Ekintza lerroa, guztira	**111.777,24**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Profesionalen zainketa-planarekin jarraitzea	111.777,24			2027/01/01	2027/12/31	
3. Ekintza lerroa: Foru Aldundiaren kudeaketa sistema eraginkorragoa garatzea.						
 % 100,00						
	Ordainketa kredituak	**Datozen urteetako gastuak**	**Sarrera lotua**	**Hasiera data**	**Bukaera data**	**Etorkizuna eraikiz**
Ekintza lerroa, guztira	**13.040,67**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
3.1 Ekintza Departamentuko zerbitzuen arteko koordinazio teknikoa.	13.040,67			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Pertsonen ongizate fisiko eta emozionala zaintzen eta prebenitzen duen gizartea bultzatzea, bizitza proiektu asebeteak izan ditzaten aukerak ahalbidetzen dituena.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Eskola kiroleko programan izen-ematea	Kopurua	>=	98.185,00	98.185,00	109.500,00	109.500,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Bazterkeria egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarte inklusioa lantzea, eta horientzako zerbitzuen prebentzioan, aurreikuspenean, pertsonalizazioan eta partaidetzan sakontzea. Ingurune osasuntsu eta komunitate saretu batek duten garrantzia aitortuz eta estrategietan txertatuz.



% 61,69



% 7,41



% 1,01



% 20,50



% 8,93



% 0,47

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**2.609.599,51**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden eta Gizarte Zerbitzuen sistema publikoa baliatzeko zailtasunak dituzten pertsonei estaldura emateko jarduerak garatzea	488.685,81			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Tokiko eta eskualdeko koordinazio egiturak eta mekanismoak sustatzea, bazterketa prebenitzeko eta horri aurre egiteko tokiko ekosistemen garapena bultzatuz	123.195,43			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Zerbitzuen kudeaketan erabiltzaileen parte hartzea sustatzea, eta gizarte politiken diseinuan herritar guztien parte hartzea ahalbidetzea	590.032,33			2027/01/01	2027/12/31	
1.4 Ekintza Elkar-EKIN Lanean estrategiaren esparruan, bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko berariazko jarduerak garatzea	644.176,28			2027/01/01	2027/12/31	
1.5 Ekintza Bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonek etxebizitza eskura dezaten sustatzea eta ostatatze arloan dituzten premiei erantzutea	441.503,18			2027/01/01	2027/12/31	
1.6 Ekintza Bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonei kultura, aisia edo denbora libreko jardueretarako sarbidea ahalbidetzea	40.700,43			2027/01/01	2027/12/31	
1.7 Ekintza Sareko zerbitzuen funtzionamendua pertsonalizazioaren ikuspegira egokitzea eta arreta eredu komuna finkatzeko aurrerapausoak egitea	206.787,89			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.8 Ekintza Lehen eta bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen baterako lanerako eta/edo integraziorako beharrezko akordioak sortzea	37.259,08			2027/01/01	2027/12/31	
1.9 Ekintza Konplexutasun handiko bazterketa egoeran dauden pertsonei ematen zaien arreta hobetzea	18.629,54			2027/01/01	2027/12/31	
1.10 Ekintza Profesionalen prestakuntza eta hobekuntza bultzatzea	18.629,54			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Pertsona guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta pertsonalizatuaren, kalitatezkoaren eta inklusiboaren bidez, gizarte zerbitzuen sarea indartuz, konektatuz eta ebaluatuz, berrikuntzan eta berdintasunean oinarrituta.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gogobetetze-maila zerbitzuak jasotzean eta ematen zaien arretan.	Kopurua	>=	8,10	8,80	8,80	8,00
Erreferentziazko langileen figura duten zerbitzuen kopurua	Kopurua	>=	2,00	2,00	3,00	3,00
Egoitzetara sartzeko pertsonen itxarote zerrenda	Kopurua	<=	945,00	945,00	890,00	890,00
Zaintza ekosistemetan dauden ahulak edo mendekoak diren Gipuzkoako biztanleen ehunekoa	Ehunekoa	>=	68,90	68,90	67,00	67,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Sare publikoaren eskaintza gizarte premien bilakaerara egokitzea.



% 70,00



% 30,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**74.518,16**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa onartu eta	74.518,16			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
hedatzea						

2. Ekintza lerroa:

Indarkeria matxistaren prebentzioan sakontzea, eta biktimak artatzeko sistemaren pertsonalizazioan, partaidetzan eta biktimizazio ezean aurrera egitea, betiere, genero ahalduntzea lortze aldera.

1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA % 50,00

5 GENERO BERDINTASUNA % 50,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**217.175,53**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Indarkeria matxistaren emakume biktimen harrera zerbitzuak berrikustea eta Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari egokitzea	217.175,53			2027/01/01	2027/12/31	

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Herritarrek gizarte zerbitzuetarako duten eskubide subjektiboa bermatzea, Foru Aldundiaren eskumenekoak diren prestazioak eta zerbitzuak behar bezala emanda.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gizarteratzeko zerbitzuetan arreta jaso duten pertsonen kopurua	Kopurua	>=	16.806,00	8.336,00	8.387,00	7.500,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Foru Aldundiaren eskumenekoak diren zerbitzuak eta prestazioak ematea, 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak, xedatutakoari jarraituz.

1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA % 61,02

5 GENERO BERDINTASUNA % 12,83

10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA % 26,15

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**53.030.998,01**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Gizarteratzeari lotutako egiturazko zerbitzuak eta programak	46.224.870,78			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.2 Ekintza Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen arretari eta larrialdi sozialei lotuta dauden egiturazko zerbitzu eta programak	6.806.127,23			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Eskalatzea eta Komunikazioa

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Zainketen agendaren emaitzak jakinarazteko ekintzen kopurua	Kopurua	>=	2,00	2,00	2,00	2,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Trantsizioko Gizarte Politiken komunikazio-estrategia hedatzea



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**70.614,32**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Euskarazko erabilera eta komunikazioa indartzea gizarte-zerbitzuetan	70.614,32			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Handia

Beharraren deskribapen xehatua:

-Pobreziak eta gizarte-bazterkeriak eragin desberdina dute emakumeengan eta gizonengan.** Euskadin, 2022an, pobrezia errealaren tasa % 4,2koa izan zen emakumeen artean, eta % 3,8koa gizonen artean. Era berean, 2023an, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) titularren % 57,3 emakumeak ziren. Desberdintasun horiek emakumeek zenbait kalteberatasun ekonomikoko egoeratan duten esposizio handiagoa islatzen dute. (Eustat; Emakunde, *2024ko Zifrak*).

- Indarkeria matxista emakumeen kalteberatasunaren eta gizarte-bazterkeriaren faktore nagusietako bat da. Etxebizitza utzi behar izateak, erasotzailearekiko mendekotasun ekonomikoak eta ondorio fisiko zein psikologikoek babes-, ostatu-, arreta psikosozialeko eta suspertze-prozesurako laguntza-behar espezifikoak sortzen dituzte.

- Arreta jasotzen duten emakumeek diskriminazio anizkoitzeko edo intersekzionaleko egoerak izaten dituzte maiz. Migratzailea izateak, desgaitasunak, osasun mentaleko arazoek, mendekotasunek, adinak, laguntza-sarerik ezak edo bakarrik amatasuna bizitzeak baliabideak eskuratzeko zailtasunak areagotu ditzakete, eta egoera horietara egokitutako erantzunak behar dituzte.

- Genero-desberdintasunek bere horretan jarraitzen dute zaintza-erantzukizunen banaketan.** Euskadin, 2023an, emakume landunek egunean 4,7 ordu ematen zituzten seme-alaba adingabeak zaintzen; gizonek, berriz, 3,6 ordu. Banaketa desorekatu horrek gizarteratzeko ibilbideetan, prestakuntzan eta enpleguan parte hartzeko aukerak baldintza ditzake. (Eustat; Emakunde, *2024ko Zifrak*).

- Gizonek presentzia handiagoa dute gizarte-bazterkeria larriaren zenbait egoeratan**, bereziki kalean bizitzearekin lotutako egoeretan eta gizarteratzeko egoitza-baliabide batzuetan. Hala ere, emakumeek baliabide jakin batzuetara gutxiago jotzeak ez du nahitaez esan nahi gizarte-bazterkeriaren eragina txikiagoa denik; izan ere, aldi baterako beste pertsona batzuen etxeetan ostatu hartzera jo dezakete, edo mendekotasun- edo indarkeria-harremanetan denbora luzeagoan iraun.

- Genero-estereotipoek eta -rolek gizarte-esku-hartzeko prozesuak baldintzatzen jarraitzen dute. Emakumeen eta gizonen inguruko aurreikuspenetan ez ezik, baliabideak eskuratzeko, erabiltzeko eta haietan jarraitzeko aukeretan ere eragina izan dezakete. Horregatik, beharrezkoa da genero-ikuspegia sistematikoki txertatzea balorazioan, gizarteratzeko ibilbideen diseinuan eta laguntzen eskaintzan.

- Indarkeria matxistak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren egiturazko adierazpen izaten jarraitzen du, eta gizarte-babeseko sistemen erantzun espezializatua, integrala eta koordinatua eskatzen du.

- Emakumeen etxegabetasuna ez da behar bezala hautematen, bereziki ikusgai ez diren egoeretan. Emakume batzuek kalean lo egitea saihesten dute, aldi baterako ostatu informaletara joz edo mendekotasun- eta indarkeria-harremanetan jarraituz. Horrek haien beharrak identifikatzea zaildu dezake.

- Gizarte-bazterkeriak eta indarkeria matxistak elkar elikatzen dute. Prekarietate ekonomikoak, etxebizitzarik ezak eta laguntza-sarerik ezak indarkeriaren aurrean kalteberatasuna areagotu dezakete. Aldi berean, indarkeriak etxebizitza, diru-sarrerak eta autonomia galtzea eragin dezake, eta horrek gizarteratzeko prozesuak zaildu.

Berdintasun-agindu nagusiak:

Genero-ikuspegiaren printzipioa.
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren bermea eta errespetua administrazio-jardunaren printzipio gidari gisa txertatzea.
Genero-ikuspegia gizarte-zerbitzuen plangintzan, antolaketan, prestazioan eta ebaluazioan txertatzea.
Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei arreta integrala, espezializatua eta koordinatua eskaintzea.
Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren forma guztiei aurre egiteko prebentzio-, detekzio goiztiarreko, babes-, arreta- eta erreparazio-neurriak txertatzea.

Emakumeek gizarteratzeko baliabide eta zerbitzuetara iristeko dituzten oztopo espezifikoak ezabatzea.
Emakumeen ahalduntzea, autonomia pertsonala eta ekonomikoa eta gizarte-partaidetza sustatzea.
Arreta-baliabideek eta -zerbitzuek genero-ikuspegia txertatzen duten protokoloak eta prozedurak izatea bermatzea.
Gizarte-zerbitzuen, osasunaren, enpleguaren, etxebizitzaren, justiziaren, hezkuntzaren eta segurtasunaren sistemen arteko koordinazioa bultzatzea.

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

Ekintza lerroak:

- EL.1.2.4: Indarkeria matxistaren prebentzioan sakontzea, eta biktimak artatzeko sistemaren pertsonalizazioan, partaidetzan eta biktimizazio ezean aurrera egitea, betiere, genero ahalduntzea lortze aldera.

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Ekintza	Aurrekontua	Programa %
Indarkeria matxistaren emakume biktimen harrera zerbitzuak berrikustea eta Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari egokitzea	217.175,53	0,39
Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen arretari eta larrialdi sozialei lotuta dauden egiturazko zerbitzu eta programak	6.806.127,23	12,12
Guztira	**7.023.302,76**	**% 12,51**

Programaren gainerako ekintzetan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da, honako jarduera hauen bidez:

- Emakumeen eta gizonen osaera orekatua

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	9,50	puntu
Kuantifikazioa:	7.023.302,76	(% 12,51)
Ordainketa kredituak:	7.023.302,76	(% 12,51)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Hizkuntz berdintasuna bermatzea gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei, gizarte larrialdiko egoeran dauden pertsonei, eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei, komunikatzeko nahiago duten hizkuntzaren aukera ziurtatuz.

Kategoria	Nola
4.- Hizkuntza-gaitasuna	**Aunque el origen de la mayoría de personas que son objeto de este programa de atención no sea Euskal Herria, en consonancia con el plan estratégico del euskera del Departamento, se quiere convertir en la principal lengua de trabajo**

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Zerbitzuaren lana gidatzen duen dokumentua Gipuzkoako II. Gizarteratze Plana da, Elkar-EKIN, eta honako harremana du Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH):
GIH 1aren helburua: pobrezia mota guztietan desagerraraztea.
GIH 5aren helburua: genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztien ahalduntzea sustatzea.
GIH 10aren helburua: desberdintasunak murriztea herrialdeen barnean eta haien artean.
GIH 16aren helburua: gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, erakunde eraginkor, arduratsu eta inklusiboekin, eta guztientzako justiziarako sarbidea bermatzea.
GIH 17aren helburua: garapen iraunkorrerako aliantza globalak indartzea eta inplementazio-baliabideak sendotzea.
GIH 18aren helburua: hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta aitortza bermatzea 2030 Agendan, haien ekarpena sustatuz garapen iraunkorrari, gizarte-kohesioari eta herrien identitateari.

Kuantifikazioa: 56.146.352,98 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA	1-Pobreza desagerraratzea Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.	**34.183.864,85**	
Helburua	1.3 - Gipuzkoa mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, 2030. urterako, pertsona pobre eta kalteberen babes zabala lortzea	34.183.864,85	
	Ekintza lerroak		
	Foru Aldundiaren eskumenekoak diren zerbitzuak eta prestazioak ematea, 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak, xedatutakoari jarraituz.	32.357.409,55	
	Bazterkeria egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarte inklusioa lantzea, eta horientzako zerbitzuen prebentzioan, aurreikuspenean, pertsonalizazioan eta partaidetzan sakontzea. Ingurune osasuntsu eta komunitate saretu batek duten garrantzia aitortuz eta estrategietan txertatuz.	1.609.816,21	
	Indarkeria matxistaren prebentzioan sakontzea, eta biktimak artatzeko sistemaren pertsonalizazioan, partaidetzan eta biktimizazio ezean aurrera egitea, betiere, genero ahalduntzea lortze aldera.	108.587,76	
	Sare publikoaren eskaintza gizarte premien bilakaerara egokitzea.	52.162,71	
	Barne antolaketaren eraldaketa sustatzea, egiturei, profilei eta pertsonei dagokionez.	55.888,62	
3 OSASUNA ETA ONGIZATEA	3-Osasun eta ongizatea Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.	**193.252,88**	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Helburua	- Osasun-estaldura unibertsala lortzea, finantza-arriskuen aurkako babesa barne, kalitatezko funtsezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea barne, eta kaltegarriak ez diren eta guztiontzako eraginkorrak, eskuragarriak eta kalitatezkoak diren medikamentu eta txertoak eskuratzeko aukera barne	193.252,88	
	Ekintza lerroak		
	Bazterkeria egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarte inklusioa lantzea, eta horientzako zerbitzuen prebentzioan, aurreikuspenean, pertsonalizazioan eta partaidetzan sakontzea. Ingurune osasuntsu eta komunitate saretu batek duten garrantzia aitortuz eta estrategietan txertatuz.	193.252,88	
5 GENERO BERDINTASUNA	5-Genero berdintasuna Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.	**6.996.871,27**	
Helburua	5.2 - Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria-modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-esplotazioa eta beste esplotazio-mota batzuk barne	6.996.871,27	
	Ekintza lerroak		
	Foru Aldundiaren eskumenekoak diren zerbitzuak eta prestazioak ematea, 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak, xedatutakoari jarraituz.	6.806.127,23	
	Bazterkeria egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarte inklusioa lantzea, eta horientzako zerbitzuen prebentzioan, aurreikuspenean, pertsonalizazioan eta partaidetzan sakontzea. Ingurune osasuntsu eta komunitate saretu batek duten garrantzia aitortuz eta estrategietan txertatuz.	26.267,65	
	Indarkeria matxistaren prebentzioan sakontzea, eta biktimak artatzeko sistemaren pertsonalizazioan, partaidetzan eta biktimizazio ezean aurrera egitea, betiere, genero ahalduntzea lortze aldera.	108.587,76	
	Barne antolaketaren eraldaketa sustatzea, egiturei, profilei eta pertsonei dagokionez.	55.888,62	
10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	10-Desberdintasunak murriztea Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.	**14.402.442,74**	
Helburua	10.2 - Pertsona guztien inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa bultzatzea eta sustatzea, edozein dela ere haien adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera.	14.402.442,74	
	Ekintza lerroak		
	Foru Aldundiaren eskumenekoak diren zerbitzuak eta prestazioak ematea, 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak, xedatutakoari jarraituz.	13.867.461,23	
	Bazterkeria egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarte inklusioa lantzea, eta horientzako zerbitzuen prebentzioan, aurreikuspenean, pertsonalizazioan eta partaidetzan sakontzea. Ingurune osasuntsu eta komunitate saretu batek duten garrantzia aitortuz eta estrategietan txertatuz.	534.981,51	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	11-Hiri eta komunitate jasangarriak Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.	**232.961,72**	
Helburua	11.1 - 2030. urterako, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea	232.961,72	
	Ekintza lerroak		
	Bazterkeria egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarte inklusioa lantzea, eta horientzako zerbitzuen prebentzioan, aurreikuspenean, pertsonalizazioan eta partaidetzan sakontzea. Ingurune osasuntsu eta komunitate saretu batek duten garrantzia aitortuz eta estrategietan txertatuz.	232.961,72	
	16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	**35.396,12**	
Helburua	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan	35.396,12	
	Ekintza lerroak		
	Sare publikoaren eskaintza gizarte premien bilakaerara egokitzea.	22.355,45	
	Foru Aldundiaren kudeaketa sistema eraginkorragoa garatzea.	13.040,67	
	17-Helburuak lortzeko aliantza Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	**30.949,08**	
Helburua	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	30.949,08	
	Ekintza lerroak		
	Bazterkeria egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarte inklusioa lantzea, eta horientzako zerbitzuen prebentzioan, aurreikuspenean, pertsonalizazioan eta partaidetzan sakontzea. Ingurune osasuntsu eta komunitate saretu batek duten garrantzia aitortuz eta estrategietan txertatuz.	12.319,54	
	Etorkizuna Eraikizek sustatzen duen lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailean sakontzea.	18.629,54	
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna Kultura eta hizkuntza aniztasuna	**70.614,32**	
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	70.614,32	
	Ekintza lerroak		

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Trantsizioko Gizarte Politiken komunikazio-estrategia hedatzea	70.614,32	
Guztira	**56.146.352,98**	

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	1.795.958,00	1.862.954,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	6.687.028,00	8.294.780,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	41.361.472,00	45.488.619,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**49.844.458,00**	**55.646.353,00**					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS		500.000,00					
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras		**500.000,00**					
Guztira / Total	**49.844.458,00**	**56.146.353,00**					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	666.006,02	1.196.947,95			666.006,02	1.196.947,95
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.353.019,63	6.941.760,38			1.353.019,63	6.941.760,38
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	525.715,00	44.962.904,00			525.715,00	44.962.904,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**2.544.740,65**	**53.101.612,33**			**2.544.740,65**	**53.101.612,33**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS	500.000,00				500.000,00	
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	**500.000,00**				**500.000,00**	
Guztira / Total	**3.044.740,65**	**53.101.612,33**			**3.044.740,65**	**53.101.612,33**

Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos	2026	2027	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK TASAS Y OTROS INGRESOS	5.000,00	5.000,00	
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
5. ONDARE SARRERAK INGRESOS PATRIMONIALES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**5.000,00**	**5.000,00**	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital			
8. AKTIKO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	**5.000,00**	**5.000,00**	